

Andoaingo Txirrindulari Eskolaren denboraldi hasiera, herrian bertan



Aurreko ilaran: Oihan Amilibia, Ibone De godos, Markel Marzol, Oihana Arruti, Igor Bereziartua, Xuhar Etxezarreta, Maddi Galarza, Iker Balbas, Iker Atxaga, Igoia Pikabea, Izaro Zuriarrain, Aimar Murua, Unax Azpiroz, Ibai Vela, Peru Alkain. **Atzeko ilaran:** Xabi Perez, Aitzol Zuriarrain, Julen Irigoien (entrenatzaileak), Dani Fursenko, Alexey Fursenko, Ander Amonarriz, Maddi Rodriguez, Ibai Omeñaka, Unai Galarza, Odei Zabala, Pedro de Godos (entrenatzailea), Laiene Pikabea eta Jon Mikel Mujika, Jose Luis Barberena eta Patxi Altuna (entrenatzaileak). Hogeita hamaikagarren denboraldiari ekin dio Andoaingo Txirrindulari Eskolak.

Infantil eta alebin mailako denboraldia larunbat honetan abiatuko da.

Andoainen bertan, gainera. Hasiera polita izango dute, etxekoen begiradapean.

Jubenil mailakoek aurreko asteburuan ekin zioten denboraldiari, Eibarren. Lehen lasterketarekin pozik daude, podiuma zapaldu dutelako. Hau xe diote taldeko arduradunek: "Ondo hasi dugu denboraldia, Eibarren ospatu da denboraldiko lehen lasterketa jubenil

mailan eta bertan Ander Amonarriz gure txirrindulariak lehen podiuma lortu du. Hirugarren postua lortu du spinean, hamar lagunez osatutako taldetxo batean". Udazken-neguko prestakuntza lanak eginda, txirrindulariak errepidean dena emateko prest daude.

Denboraldiaren hasiera

- **Martxoak 5, larunbata**
Infantil eta alebin maila.
16:30. Andoain.
- **Martxoak 6, igandea**
Jubenil maila.
16:30. Errenteria.
- **Andoaingo.eus**
Denboraldiaren jarraipena.



Iñaki Aizpuru eskolako zuzendaria.

Zine eta bideo eskolari babesa

Aurreko ostegunean, Andoaingo plenoan Udal ordezkari guztiek aho batez ESCIVI eskolaren aldeko mozioa onartu zuten. Berriki, Aldundiko Kultura sailak Tabakaleran zine eskola sortzeko iragarpena egin du eta horrek kezka eta haserrea sortu du Andoaingo eskolako arduradunengan.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]



Saharako ikurrina, Larramendi Bazkunaren egoitzako mastan.

Bertso saioa, elkartasun festa

Hurria Sahara elkarteak urtero antolatzen duen elkartasuneko bertso saioa ospakizun bilakatu zen. Aurreko igandean Basteroko ekitaldi aretoa bertsozalez bete zen. Eskualdean, bestalde, Sahara herriaren aldeko keinu ezberdinak egin dituzte azken egunetan.

[ANDOAIN, 6-7. ORRIALDEAK]

Haur minbiziaren ikerkuntzararako milaka euroko ekarpena

"Hontz zuriaren lurraldean" ikuskizunaren amaieran, Urnietan bildutako dirua jaso zuten Biodonostiak.

Super H Urnietako elkarteak ekimen betean dabil azken urteetan, lortutako dirua haurren minbiziaren ikerkuntzara bideratu asmoz. Azken hilabetean Sanmieletan edota argitaratu duten ipuinaren bitartez

9.900 euro bildu dituzte. Aurreko igandean Saroben eskaini zuten ikuskizuna eta gero, urnietarrek diru hori txeke baten bidez eman zieten Biodonostiako ordezkariari. Hauek esker ona adierazteaz gain, haur minbiziaren ikerkuntzan Euskadik duen garrantzia nabarmendu zuten. Super H elkarteak Biodonostia edota Cruces ospitaleekin jardura ezberdinak garatzeko lanean ari da.

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]



Biodonostiako kideek ia hamar mila euroko txekia jaso zuten Super Hren eskutik.

HITZORDUAK URNIETAN NAZIOARTEKO EMAKUME LANGILEGOAREN EGUNAREN HARIRA

Kontzientzia pizteko hitzorduak

Astelehenetik aurrera antzerki emanaldi, elkarretaratze, solasaldi, ikus-entzunezko eta kultur ekitaldien bidez berdintasunarekiko kontzientzia pizten ahaleginduko dira Urnietan.

Hitzordu guztiak astebetean pilatu dituzte. Hilabete osoan zehar, gainera, Iñaki Vergararen "Emakumeen begiradak" izeneko argazki erakusketa Lekaion ikusgai izango da.

Pilotariak, emakumezko pilotariak hizpide duen "Las pelotaris" film dokumentala ikusgai izango da Urnietan, datorren asteazkenean. Nafarroan garatutako ekimena da, **Andres Salaberri** eta **Daniel Burgiren** eskutik. Bi zuzendariak Urnietan bertan izango dira ikus-entzunezkoa aurkezten. Maite, Alicia, Rosa, Marion, Esther eta eskal pilotan aritutako emakume askoren historia biltzen du. Mundu mailan hogeita hamar herrialdetan jokatzeko bada, gaur gaurkoz exotiko samarra da. Eta bereziki, gizonezkoa. Emakumezkoak izan badira, txapeldun handiak gainera, baina euren garaipenak oharkabean igarotzen dira.

Bezperan, Udalak antolatutako duen kirolarien mahai-inguruan pala jokalaria ohia hizke-



Martxoaren 8an, asteartea, elkarretaratzea egingo dute San Juan plazan iluntzeko 19:00etan hasita.

tan arituko da: **Maidier Mendizabal**. Ibilbide luzea eta oparoa du, eta berea ere oharkabean

pasa denaren adibide garbia da. Azken aldi honetan 'Me reto 100 dias' ekimenean mur-

gilduta dabil. Egitasmo berri-tzaile horrekin ariketa fisikoa, elikadura eta garapen pertso-

nala uztartzen dituzte. Mahaian, alboan izango du **Nahikari Garcia** futbol jokalaria. Oso gaztea izanik ere, elitean dabil Realarekin eta Espainiako selekzioarekin. Gizonezkoek dituzten baldintzetatik oso urrun, hori bai.

Kirolaz gain, Udalak elkarretaratzea edota herri afaria deitu ditu.

Ekitaldi sortari poesia emanaldiarekin emango diote amaiera, **Harkaitz Canok** euskarara itzulitako **Anne Sexton** idazle estatubatuarraren poema sortarekin. Ez da bakarrik hurbilduko, **Ainara Gurrutxaga** aktorea eta **Iban Urizar** musikaria ere zuzenean arituko baitira.

Ekitaldi sorta zabala agenda atalean eta aiurri.eus webgunean eskuragarri izango dira.

martxoak 8

Emakumeen nazioarteko eguna



MARTXOAN: "Emakume Begiradak". Argazki erakusketa
Argazkilaria: Iñaki Vergara. Lekaio kultur etxea

MARTXOAK 7: ASTELEHENA
19:00 | Lekaio kultur etxea
Gaztelaniaz
"Cuentos para no parar de correr"
Ipuin kontalaria: Marian Santamaria
Helduentzat

MARTXOAK 9: ASTEAZKENA
19:00 | Sarobe A.E.G. | Gaztelaniaz
Dokumental-laburmetraia:
"Las pelotaris" [27 min]
Zuzendariak bertan izango dira:
Andrés Salaberri & Daniel Burgui

MARTXOAK 8: ASTEARTEA
19:00 | San Juan plaza
Elkarretaratzea

MARTXOAK 12: LARUNBATA
21:30 | Oianume
Emakumeen afaria
Apuntatzeko: Caja Laboral

19:15 | Lekaio kultur etxea |
Euskaraz
Mahai ingurua:
"Emakumeak goi mailako kirolean: atzo, gaur eta bihar"
Hizlaria:
Ainhoa Ostolaza
Idoia Esnaola
M. Jose Sardon
Maidier Mendizabal
Nahikari Garcia
Moderatzailea:
Ainhoa Azurmendi

MARTXOAK 13: IGANDEA
19:00 | Sarobe A.E.G. | Euskaraz
Anne Sexton-en poesia-errezitala:
"Ene maite kuttun guztiak"
Harkaitz Cano, Ainara Gurrutxaga eta Iban Urizar

Sororitatea



Oinordekotza lege berria, hitzaldia ostiral honetan



Interes handiko hitzaldia antolatu du **Denda Berri** jubilatuen elkarteak, euren egoitzan bertan. Ostiral honetan izango da, arratsaldeko 17:00etan hasita. Hitzaldia herritar guztiei irekita dago.

Iazko urriaren 3an hasita, Euskadin oinordekotzak eta testamentuak arautzen dituen **Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko lege berria** indarrean jarri da. Aldaketa esanguratsuekin, gainera. Onartu berri den lege berriarekin hildakoen alargunek eskubide gehiago izango dituzte. Sem-alaben kasuan, oinordekotzarik gabe uzteko atek zabaldu dira. Aurrerantzean, esaterako, aitona-amonek ondasun guztiak biloba bakar baten eskuetan utz ditzakete.

Aldaketa handiak ekarriko dituen lege berria da, eta gaur gaurkoz ezezagutza handi samarra da. Zalantza horiek guztiak argitzen saiatuko da **Arantxa Intxausti** abokatua. Aiurriri adierazi dioenez, "aldaketa garrantzitsua da. Entzun izan dugu, testamentuen kasuan, nafarren araudia askoz irekiagoa dela. Bada, Euskadiko lege berria nafartarrenari nabarmen gerturatu zaio. Aldaketa handia dator hil osteko ondasunen banaketan. Alargunek, esaterako, eskubideei

Oinordekotza eta testamentua arautzeko lege berria azaltzen ariko da Arantxa Intxausti abokatua, ostiral honetan Denda Berrin arratsaldeko 17:00etan hasita

dagokionez pisu handiagoa izango dute".

Intxaustik hitzaldi arina eskaintzeko ahalegina egingo duela aitortu du, legedia ahalik eta modu didaktikoenean azalduz. Bere hitzaldietan egin ohi duen bezala, hizketan ari den bitartean entzuleek galderak eta zalantzak egin ahal izango dituzte.

INTERES ETA GARRANTZIA HANDIKO GAIA

Euskal Zuzenbide Zibileko Lege berria indarrean sartu berri den honetan, martxoaren 2an "XXI mendeko Euskal Zuzenbide Zibila: Oinordetza praktika eta 5/2015 Legea, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoa, Gipuzkoan" izeneko jardunaldia izan zen Gipuzkoako Foru Aldundian, Eusko Legebiltzarrak eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak antolatua.

Imanol Lasa Aldundiko bozeramaileak jardunaldiaren garrantzia azpimarratu zuen: "Oinordetza eremua nabarmen aldatu da, eta interesgarria da marko juridiko berri hori aztertzea, lurraldeko legetariet erantzun egokia eman ahal izan diezaieten herritarren artean, oinordetza eta testamentuen arloan nagusiki, sortzen ari diren premia, zalantza eta kontsul-ta berriei".

Panel berriak Besabin



Onddi-Mandoegi estazio megalitikoari eta **Muniskuegañako** aztarnategi megalitikoari buruzko informazioa emateko panel bana jarriko dituzte **Be-**

sabin (ofizialki, Besadegin). Handik bertatik, Muniskuera doan bidea markatu edo seinaleztatu egingo dute bisitariak galdu gabe irits daitezten.

Zurriola antzerki eskolako taldearen eskutik, igande honetan

Tartufo antzezlan ezaguna euskarara ekarria

Donostiako Zurriola antzerki eskolako Biga antzerki taldeak Molieren *Tartufo* antzezlan taularatuko du Saroben, igandean arratsaldeko 19:30ean hasita. Juan Martin Elexpuru idazleak egindako itzulpena abiapuntu hartuta, donostiarak XVII. mendeko obra ezaguna lehen aldiz euskaraz eskaintzen ari dira.

Joserra Fachado antzerkigile ezaguna euskarazko antzezlanaren zuzendaria da. Aktoreen artean, Mikel Karton arituko da Tartufoaren paperean. Antzezlanak Tartufo protagonistak Orgon burges familian egiten dituen jukutiak erakutsiko ditu. Obra aski ezaguna da, klasiko horietakoa.



Tartufo euskaraz ikusteko aukera izango da igande honetan, Saroben.

Gainerako aktoreak ere Zurriola antzerki eskolako kideak dira: Ivan Aizpurua, Ainara Mendiola, Imanol Olasagasti, Jone Larrañaga, Jon Sarriegi,

Jon Fernandez, Ivan Aizpurua edota Anuxka Etxeberria.

Antzezlan ikusteko sarreraren prezioa 4 eurokoa izango da.







GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ORONA IDEO · MARTXOAK 5
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

GOIERRI · MARTXOAK 12
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI · MARTXOAK 5
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

BILBAO · MARTXOAK 12
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · MARTXOAK 12
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

ARETXABALETA · MARTXOAK 12
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MARTXOAK 19
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

#erronkarakoprest

SUPER H ELKARTEAK IA HAMAR MILA EUROKO TXEKEA EMAN DIO BIODONOSTIARI, HAUR MINBIZIAREN IKERKUNTZARAKO

Ikerkuntza Hrekin idazten da

Kontaketa, dantza eta musika uztartu zituzten igandean Saroben egindako ekitaldian. Emanaldiaren amaieran, Super H elkarteak Biodonostiari orain arte bildutako diruaren txeketa eman zion. Az-

ken hilabeteotan jarduera ezberdinetan bildutako dirua da. Biodonostiako bi ordezkari Urnietara hurbildu ziren txeketa jaso eta esker ona adieraztera. Ikerkuntzarako bideratuko da diru guztia.



Almu Salas Super H elkarteko lehendakaria Idoia Garcia eta Junkal Aldaregia Biodonostiako kideekin batera.



Lorena Nuñez, Francisco Herrero, Xabier Zeberio, Olatz Oribe eta Miren Amuriza ikuskizuneko artistak.

Aurreko igande arratsaldean Miren Amurizaren ahotik “Super H Hontz zuriaren lurraldean” ipuina entzuteko aukera izan zuten bertaratu zirenek. Sarobe artoza sartzeko sarrera guztiak salduta, ikusle guztiak Super Hren paperean jarri zituzten, antifaza begietan jarrita. Horrela ikusi eta entzun zituzten Aukeran dantza taldeko Olatz Oriberen dantza ikusgarriak eta Alos Quartet taldearen doinuak.

Ikuskizuna amaituta, Idoia Garcia eta Junkal Aldaregia Biodonostiako ikertzaileek esker ona adierazi zioten Super H taldeari eta bide batez, baita

taldeari laguntza eskaini dieten herritar guztiei ere. Idoia Garcia-arentzat laguntza garrantzia handikoa da, “nik beti egin izan dut lana haur minbiziaren alorrean. Super H taldeari esker nire proiektua abiatzeko aukera izan nuen”. Haur minbizian oinarritutako ikerketa taldea duela bi urte sortu zuten lehen aldiz Gipuzkoan. Proiektua bi ildo nagusitan oinarritzen da; batetik, ez ohiko gaixotasunak karakterizatu nahi dituzte, haurrak errazago eta azkarrago diagnostikatzeko. Bestetik, nerbio sistemako minbizietarako farmako berriak garatu nahi dituzte, gaur



Ikusleak Super Hren maskara jantzita, ikuskizunaren hasieran.

egungo tratamenduek sortzen dituzten albo-ondorioak saihesteko.

Super H taldeak Biodonostiari emandako diru ekarpenari esker, Junkal Aldaregia kon-

tratatzeko aukera izan dute. Azaldu zuenez, haur minbizia “oso gutxi” ikertzen da munduan eta, beraz, proiektu hauen baitan emango diren pauso guztiak garrantzitsuak izango direla uste du: “Terapia zein diagnostiko aldetik, garrantzitsua izango da haurrentzat eta baita zientzia munduarentzat ere”. Horregatik, bere tesi dokoralari ikerketa horretan oinarrituko du. “Oso pozik nago proiektu honen parte izateagatik. Eskerrik asko denei”.

Txalo artean amaitu zen ekitaldia. Hurrengo hitzordua apirilaren 30ean da, Super H egunaren edizio berrian.

AIURRI.EUS

Webgune berritan azken egunetako albisteak jasotzen dira eta baita hainbat argazki eta bideo bilduma ere. Besteak beste, aurreko asteburuko erraustegiaren aurkako bideoak edota Andoaingo piano jaialdiari buruzko argazkiak eta bideoak.

Webgune berrian oso modu errazean bidal daitezke zorion agurrak, Aiurriko azken orrialdean argitaratzeko. Doakoa da zerbitzua.

Postontzia, Komunitatea, Agenda... webguneak eskaintzen dituen beste atal interesgarriak dira.

URNIETAREN PARTE HARTZE HANDIA ANDOAINGO PIANO JAIALDIAN



Urnietako musika eskolak urrezko 8 domina, zilarrezko 14 eta brontzezko 4 lortu zituen otsailaren 20 eta 21ean Andoaingo Bastero kultur gunean ospatu zen piano jaialdian. 11. edizioa izan da aurtengoa. Lourdes Iriondo musika eskolatik 26 ikasle aurkeztu ziren: Ander Pascual, Eneko Rosco, Iraia Moreno, Ane Donavera, Eva Taracena, Sara Novo, Esti-bu Pérez, Joane Caballero, Leire Elósegui, Gariñe Serrano, Ane Pagola, Iñigo Pascual, Silvia García, Eider Morales, Ane Taracena, Fátima Abila, Ane Garciaarena, Eider Medina, Maitane Arretxe, Maria Muro, Ane Otaegi, Imanol Sologaitua, Claudia Sologaitua, Ekain Etxeberria, Oihan Etxeberria eta Daniela Novo.

Eskolak parte hartzeagatik diploma bat eta domina bat banatu zitzaizkien pianojole guztiak zoriondu nahi dituzte.

Udalak Andoaingo eskolaren aldeko mozioa adostu zuen

Zine eta bideo eskolari atxikimendua

Aurreko osteguneko Udal batzarraldian, ordezkari politikoez Andoaingo ESCIVI zine eta bideo eskolaren aldeko mozioa onartu zuten. Denis Itxaso Foru diputatuak 2016aren baitan Tabakaleran antzeko egitasmoa egingo dutela iragarri eta gero, kezka sortu da Andoaingo heziketa ikastetxean. Mozioari EAJ-PNV-ren bitartez eman zioten sarbidea, eta PSE-EEK mozio alternatiboa aurkeztu nahi izan zuen. Moduen inguruko eztabaida eta gero, soilik jeltzaleen mozioa bozkatzea erabaki zuten.

Mozioa puntuz puntu bozkatu zen. Zera dio onartutako mozioak:

1. Aldundiko Kultura sailari 2017rako iragarri dituen asmoak zeintzuk diren argitu ditzala eskatzea.
2. Andoaingo zine eta bideo eskolari babesa agertzea, ikus-entzunezkoen sektorean erreferentzia delako Gipuzkoan.
3. Aldundiko Kultura sailari



Zine eta bideo eskolako ikasleak.

Plenoaren amaieran, galde erreguetan ESCIVIKo zuzendari Iñaki Aizpuruk esker ona adierazi zuen

4. Mozioaren edukia Tabakalerari, Donostiako Udalarri,

Eusko Jaurlarizari eta Tabakalerarekin lotutako gainerako erakundeei helaraztea.

Plenoaren amaiera aldera, galde erreguetan ESCIVI eskolako zuzendari **Iñaki Aizpuru Zubitur**rek hitza hartu zuen. Hasserre eta harrituta agertu zen Foru Aldundiko Kultura sailak egin duen iragarpenarekin, besteak beste, Andoaingo ikastetxea kontuan hartu gabe egin duelako.

“Udal korporazioari esker ona azaldu nahi diot”

Udalaren aldetik jasotako babesa eskertu nahi izan zuen plenoan bertan **Iñaki Aizpuru Zubitur** eskolako zuzendariak: “Pare bat zehaztapen egin nahi nituzke, Tabakalerako ikus-entzunezko eskolaren gainean, ez baita berria aurreko larunbatean prentsa bidez jakin ahal izan genuen planteamendua.

2015eko uztailan iritzi artikulatu batean niretzat ikus-entzunezko ikastetxe batek nolako behar lukeen izan adierazi nuen, jada martxan dagoenarekin koherente izanda.

Jende askok ez dakien arren, gure ikastetxean unibertsitate mailako ikasketak eskaintzen dira. Goi mailako graduak aitortzen ofiziala dauka; hain zuzen, unibertsitateko 120 kredituren parekoa, espezialitate bakoitzean. Hortaz, egin nahi diren planteamendu berriek, koherente jokatu beharko lukete errealitate horrekin, mundu mailako ikastetxe guztiarekin egiten den bezalaxe. Estatu mailan, Bartzelona eta Madrilgo ikastetxeen kasua li-



Eskolako zuzendariak hitza hartu zuen. Ikusleen artean hainbat irakasle zegoen.

tzateke, gurekin batera. Tabakaleraren inguruan atera den informazioa, nahasgarria dela iruditzen zait. Izan ere, unibertsitate mailakoa izango dela aipatzen bada, ez da ulertzen bi edo hiru hilabeteko kursoak aipatzea. Horiek gehiago ematen dute iraupen laburreko ikastaroak, eta ez masterrak edo antzekoak.

Halaber, ulergaitza da 400 metro karratuko egoitza bide-raztea proiektu berri horren-

tzat. Ez baitu askorako ematen. Andoaingo ikastetxeak, esaterako, 3.000 metro karratu ditu, eta bertan kabitzen dira ikastetxeak, platoak, estudioak eta gainerakoak. Badijadi gauza hibrido bat egin nahi dutela Tabakaleran inguruan.

Eta azkenik, guri kontsultatu ez izanak, ezinezona eragin digula adierazi nahi dut, kontuan hartuta gaiak zuzen-zuzenean eragiten digula”.

Aztergai ugari otsaileko Udal batzarraldian

Sahara herria, ESCIVI zine eta bideo eskola, Martxoaren 8aren adierazpena, Udal funtzionamenaduaren gardentasuna edota pobrezia energetikoa hizpide izan zituzten ohi baino luzeago jo zuen plenoan.

Udalbatzan auzeratu ziren aztergai guztien edukietan adostasun zabala lortu bazen ere, eztabaida beroak piztu ziren behin baino gehiagotan. EH Bildu eta EAJko ordezkariak PSE-EEri forma eta prozeduratan zintzo ez jokatzearaino leporatu zituzten. Besteak beste, gai baten inguruan alderdi guztiak adostasuna bilatzen ari diren unean gai horri buruzko prentsa oharrak zabalduz, edota dagoeneko Udalak martxan jarrita dituen egitasmoen aldeko mozioak aurkezteko, ezer egiten ez den mezua zabaldu nahian bezala.

POBRESIA ENERGETIKOA

Aho batez onartu zen txirotasun energetikoaren aurka neurriak hartzea eskatzen zuen mozioa. Besteak beste, Udalez gairako erakundeei eta energia elektrikoan eragile diren enpresa handiei pobrezia egoeran direnei hornidura ez etetea eskatu zaie. Bozkatu aurretik, **Imanol Goenaga** jeltzaleak alor honetan Udalez gairako erakundeetan garatzen ari diren politikak gogorazi zituzten Maider Lainezi.

GARDENTASUNA

PSE-EEko **Maider Lainez**ek aurkeztutako mozioan eskatzen zen udalbatzak internet bidez plenoak zuzenean eskaintzea, eta baita udalbatza eta batzordeetan sortzen den informazioa webgunean eskuragarri jartzea. EAJko **Marijose Izagirre** eta EHBilduko **Jon Zulueta** bat egin zuten mozioaren izpirituare-

Udal ordezkariak aho batez “Feminismotik eraldaketa sozialera” izenburuko adierazpen instituzionala onartu zuten

kin, baina sozialistei gogoratu zieten eskatzen ziren neurri gehienak bidean daudela. Besteak beste, dagoeneko martxan dagoen webgune berria.

MARTXOAREN 8A

Nazioarteko emakumearen egunaren atarian, “Feminismotik eraldaketa sozialera” izenburuko adierazpen instituzionala onartu zuten. Mende oso batez emakumegizon eta borroka feministari esker, berdintasunaren aldeko urrats asko eman direla onartu arren, Udal ordezkariak oraindik eman beharreko pausorik badela aitortzen dute. Udalgintzatik hasita, “jendarte eredu berritua eraikitzeko, neurri normatibo, tekniko eta ekonomiko ausartak hartu behar direla” adieraziz. Zenbait konpromiso hartu ditu Andoaingo Udalak.

1. Epe laburrean, Berdintasun saila eratu eta beharrezko baliabide tekniko eta ekonomikoez hornitzea.
2. Herriko emakumeen errealitatea ikertu eta ezagutzeko ikerketa abian jartzea.
3. Andoaingo Udalak neurri ezberdinak jasoko dituen plan estrategikoa garatzea. Neurrien artean leudeke emakume eta gizonen berdintasunerako ordenantza, kale izendegiaren errebisioa, Udal jardunean hizkuntza ez-sexista eta inklusiboa ezartzea, Emakume Etxearen sorrera...”.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

HURRIA-SAHARA ELKARTEAK ANTOLATUTAKO BERTSO SAIOA

Saioa ospakizun bilakatuta

Elkartasunezko bertso saioa ospakizun bilakatu zen. Giro paregabea sortu zen aurreko igande eguerdian Basteroko ekitaldi aretoan, urtero Hurria-Sahara elkarteak antolatzen duen bertso saioan. Are-

toa betetzea lortu zuten, eta bertsoari dagokionez umorezko une ugari bizi izan ziren. Saioaren meritu handia Ion Beloki gai-jartzai-leari aitortu behar zaio, gaiak jartzen bikain aritu baitzen.

PSIKOLOGOARENA

Zu, Maialen Lujanbio, psikologoa zara. Kontsulta gelan daukazun bezeroek zer arazo daukaten asmatzen saiatzen zara, aurreneko begiratuan. Ea asmatzen duzun atzeko bost horiekin.

Aitor Mendiluzeri:

Tipo honi ezin zaio ilerik urdindu (bis). Aldarte eta keinu dena atsegin du. Aita ona izan nahi du, eta kargak arindu. Bestekiko tratuan goxatu berdindu. Zintzoki izateak gaixotu egin du (bis).

Aitor Mendiluzek:

Badet nik gabezia, hain ditut nabarmen (bis). Denetarik hemen ta (burmuinean) gutxiegi hemen (buru azalean). Zintzoa izatea gauza txarra omen, gaiztatu beharko det alpertu baino len. Ziur badakizula nola egiten den (bis).

Alaia Martini:

Ta hor dagon neska hori, zer dotore, zer fin (bis). la pasarelako modeloen berdin. Beti perfektu nahia, beti nahi eta ezin. Jakin zer pasatzen den Alaiarekin. Bere bizitzan ez du fallorikan egin (bis).

Alaia Martinek:

Ba, bai arrazoi duzu, nahiz uste zen broma (bis). Danan naiz azkarra, baikorra pertsona. Dena neur lezake, edozeren forma. Ez bota egoaren hainbeste sintoma. Loreak entzutera etorri naiz hona (bis).

Oihana Iguarani:

Lenago bost ziren ta geratu zaizkit lau (bis). Orain hirugarrenari begirada ri-rau. Begiak argitsuak, kopeta ez du gau. Ze egonarri daukan eta ze lasai dirau.



Semea ekartzera etorriko zen hau (bis).

Oihana Iguarane:

Semeagatik nator beti gisan kexu (bis). Abildadeagatik ezagun zaude zu. Atzeratu in dizkit hainbat konpromisu eta nere bizitza konpon dezakezu, aurretik semeana konpontzen badezu (bis).

Beñat Gaztelumendiri:

Ai azkazalak jaten darama bi ordu (bis). Nerbioa begiratzen du sabai eta zoru. Bere jazkerari guk begiratu diogu. Gizon izan nahi luke ume hala modu. Peter Pan sindromea esan ohi diogu (bis).

Beñat Gaztelumendik:

Eta zu Kanpanila igual zera, klaro (bis). Ispilu aurrean ditut orduak igaro. Gizon izan nahi eta, ni ume pikaro. Halakoak entzuna gaur baino lenago. Zuk nahi dezuna esan, ni konforme nago (bis).

Unai Muñoari:

Azkenekoak dauka argitsu kopeta (bis). Barrun zer darabilkin ez da berriketa. Maite du joatea sala-de-espereta. Maite du hor gertatzen

zaion jende buelta, bakarrik egoteak beldurtzen du eta (bis).

Unai Muñoak:

Berriz jarri didazu halako trantzea (bis). Eta ez da errezegi bidea jartzea. Neretzako zaila da oso sendatzea. Beldurra ematen dit hemen kontaktzea: bakardadea eta zukin kantatzea (bis).

BERTSO ESKOLARENA

Zuek, Aitor Mendiluze, Alaia Martin, Beñat Gaztelumendi eta Unai Muñoa Andoaingo bertso eskolako ikasleak zarete. Kontatu zer egiten duzuen Unai Muñoa irakaslearekin.

Aitor Mendiluze:

Ba egia esan astero bildu eta konpromisuan larri, inoiz ez degu erabakitzen merienda zeinek ekarri.

Alaia Martin:

Gela batean sartzen gara ta ondoren gelatik irten. Egia esan pentsatzen nabil, eta ez dugu ezer egiten.

Beñat Gaztelumendi:

Egia, ezer ez degu egiten soilik parrea eragin. Astean lautan gelditzen gera bakarrik senti ez dadin.

Unai Muñoa:

Baña, joe nola hitzegiten dun eta nolako talantea. Beti iruditu zait Muñoa tipo interesantea.

Aitor Mendiluze:

Eskua sartu ohi du patrikan ta paper zar bat atera, ta gutako bat bidali beti fotokopiak egitera.

Alaia Martin:

Delegatzea izan da beti Muñoaren pasioa. Lengo batean nik egin nion renta deklarazioa.

Beñat Gaztelumendi:

Bizitzaz eta sentimenduez filosofatzen da hemen. Nik oraindik ez det ikasi zortziko txiki bat ere.

Unai Muñoa:

Nahiz orain kritikarik gabe ez dan arrazoiari jabe. Badaezpada astero joaten gara eta hutsik egin gabe.

Aitor Mendiluze:

Bertsoak josten ikas dezagun etzizun ba proposatu! Begiratu eta parre egin genuen eta bera ez zen konturatu.

Alaia Martin:

Bertsoak josi egin behar dira, hala esan zigun aurten. Kurtso osoa damarat, beraz, artillea eramaten.

Beñat Gaztelumendi:

Esaten digu bertsoak dira ederki kostatakoak. Berak saioetan kantatzen ditu guk hemen botatakoak.

Unai Muñoa:

Ba egia oso kontentua Unain aldamenean. Askoz aspergarria zen Mendiluze zegonean.

Aitor:

Bai, Unai badu gauza bat ona, argi geratu dadila: zertan ez dakit seguru baina alegintzen da mutila.

Alaia Martin:

Len esan dezu ze aspergarri, ez zenbiltzala hain ongi. Hemen ibili al zen hirugarren gizon hori?

Beñat Gaztelumendi:

Bai, bai, garai batean hementxe ibilia degu bera. Ta behartzen gintuen puntua derrepentean erantzutera.

Unai Muñoa:

Bai, bai, Alaia, noski hemen zan guri erakutsi nahian. Intentzioa asko jartzen zan ilea zeukan garaian.

Aitor Mendiluze:

Bai, baina hori aspaldi izan zen orain ez dauka gehiegi, denborarekin bakandu zaio hari eta beste zenbaiti.

Alaia Martin:

Orain pentsatzen hasi naiz eta ezer ez dela ta igual hobe nuke apuntatu kanika talde batera

Beñat Gaztelumendi:

Irakastera joan da etorri dabilzanak urtez urte guri erakustera etorrita guregandik ikasten dute.

Unai Muñoa:

Ba nik beti defendatuko det gure Muñoa maitea. Eta ez dut nahi gure artetik sekula santan joatea.

KALEKO KARTELENA

Alaia Andoaingo Santa Krutz zubi ondoan kartela jartzen ari den gaztea zara. Zu, Maialen, zubia- ren bestaldean begira zaude, eta Alaiarengana zoaz kartelak akats ortografikoak dauzkala eta.

Maialen Lujanbio:

Nahiz borrokan zabilzan zure jotakean, zeozer falta zaizu, ta denen kaltean. Ortografiko kontuak nahiko apartean Saharak h dauka bi a-ren artean.

Alaia Martin:

Sajara jarri dut nik hainbeste alegin extrakin ipintzen ditut bazpare beinepein Zalantza bat dut, aizu, lenago enekin borroka ze idazten da uve edo bekin.

Maialen Lujanbio:

Holako galderarik ez det sarri entzun. Baina oso sinpleki behar det erantzun. Uvekin edo bekin da kasuan kasun. Segun ze nazioren aldekoa dezun.

Alaia Martin:

Beraz filosofian ni nauzu ezjakin. Akatsa ikusita odolak irakin. Haserre etorri zara eta arin-arin. Nazio ze idazten da c edo zetarekin?

Maialen Lujanbio:

Nazioarena hobe zenduke aurreztu. Hola alferrik dira bertso ta auresku. Ardura hartu behar dezu zure esku. Independentziak e(re) gidoitxorik ez du.

Alaia Martin:

Bañan zure marjena ez kalkulatuta hori soilik izan da plastikoan kulpa. Orainxe zalantza bat duzu argituta: Gidoirik ez dulako gabilta galduta.

Maialen Lujanbio:

Edo gazteak dabilz nahastuen eran gure Euskal Herrian geroan bezperan. Jotake irabazi arte jarri du aukeran, harridura ikurra soilik bukaeran.

Alaia Martin:

Ta okertzen didazu berriro muturra. Ja nago izututa, bizkarra uzkurra. Dena indezizio, ta dena beldurra. Igual jarri behar zaio galdera ikurra.

HURRIA SAHARA ELKARTEAK ANTOLATUTAKO BERTSO SAIOA

'Martxoak 8 emakume' kalejiran Hurria-Saharako bi kideri omenaldia

Teresa Otamendi eta Itziar Gorostegi ama-alabak martxoaren 8ko kalejiran omenduko dituzte, hainbat emakumerekin batera. Hurria-Sahara elkarteko kide gisa elkartasunaren eremuan egin ohi duten lana eskertu nahi dute. Izendapenak, jarraitzeko indarra eman diela aitortu dute.

Nola hartu duzue izendapena?

Itziar Gorostegi: Sorpresa handia guretzat! Lantaldean jardun izan dugunez beti, ez gara oso eroso sentitu gu nabarmentzearekin. Baina elkarteko kideek egunotan merezia daukagula adierazi digute, ama izan delako hasiera-hasieratik Andoaingo taldearen motorra. Tira, sinesten hasi beharko dugu.

Tere Otamendi: Pozik sentitzen gara, zergatik ez aitortu. Sahararen alde jarraitzeko indarra ematen digu izendapenak.

Kalejirari eta egun bereziari nola egingo diozue aurre?

I.G.: Ez gara protagonismoaren zaleak, eta pixka bat arraro sentituko gara jendearen begiradapean. Urduritasuna momentukoa izango dela eta berehala pasako dela pentsatu nahi genuke.

T.O.: Nahiago genuke jendearen atzetik joan eta ez aurretik, baina saiatuko gara modurik duinean betetzen guri dagokiguna.

Noiztik zabilzate Saharari eta saharaurrei elkartasuna eskaintzen?

T.O.: Orain 15 bat urte ekin genion. Urtebete gutxiago darabagu umeak udan hartuaz. Hain zuzen, iaz izan zen haurrik hartu ez genuen urte bakarra. Atsedean pixka bat eskatzen ziregun gorputzak.



Itziar Gorostegi eta Teresa Otamendi ama-alabak.

Zein izaten dira Hurria-Sahararen eginkizunak urtean zehar?

I.G.: Ekimen zehatz batzuk: elikagaien bilketa, bertso saioa, haurren harrera udan... Aurten goa, akaso, salbuespenekoa gertatu zaigu; uholdeak izan direla eta diru bilketako kanpaina ere martxan jarri behar izan dugulako.

Dena den, ia urte osoan gaitza ikusten diren gauzetan eta ikusten ez direnetan. Dela ekitaldien antolaketa, direla Andoain eta Gipuzkoa mailako bilerak, urtez urte pilatzen doazen burokraziarekin loturiko kontuak...

Zuek zenbat haur hartu dituzue etxean urte horietan?

I.G.: Lau haur, hiru familieta-koak. Udak gurekin igaro izan dituen mutiko baten arreba Saharatik ateratzekoa da aurtun, eta ilusioa daukagu guregana etor dadin. Garrantzia ematen diogu horri, batez ere familia berberarekin jarraitzeagatik.

Saharako herritarrekin aparteko harremana daukazue honezkeroko...

I.G.: Haur batek bi hilabete pasatzen ditu gurekin, baina urte osoko harremana izan ohi dugu bere familiarekin. Normala da telefonoz deitzea gauza txikiak eskatzeko: esate baterako, plater garbitzailea, txanpua, olioia... Oinarritzak behar dute, bizitza duina egiteko justu-justu baitaukate.

T.O.: Baina arlo materialaren gainetik, giza harremana sortzen da hemengoan eta hangoen artean. Gu haiekin kezkatzen garen neurri berean edo gehiago kezkatzen dira haiek gurekin.

Familikotzat daukazuela, alegia.

T.O.: Konplizitate berezia sortzen da gure artean! Azkenean haiek bizi duten justizia eza eta gizaki bezala egunerokotasunean sufritzen ari diren guztia zeure egitera irsten zara. Uholdeak jasan dituztenean ere, kezka bizian jarraitu ditugu hango albisteak.

Inoiz joan al zarete Saharara?

I.G.: Ni sei txandatan, ama lautan. Beti prest gaude bidaia egiteko eta lagunak bisitatzeko. Egunotan, ez dakizu zenbateko inbidia sentitzen ari garen Ana Carrere alkatea, Maider Lainez zinegotzia eta Ana Sanz teknikaria hara joan direlako.

Nola ikusten duzue Sahara herriaren etorkizuna?

T.O.: Iluna, oso iluna! Elkartasunaren aldetik murrizten ari zaie ACNURretik heldu ohi zaieen langintza; izan ere, munduan gero eta errefuxiatu gehiago baitago laguntzak banatzeko. Eta politikoki ere, nazioartean oso bazterrean daude. Gerraren alternatiba geratzen zaie, baina ez daude horrekin oso konbentzitu. Maroko oso estatu armatua da, eta Saharako emakumeak, batez ere, ez daude prest beren seme-alabak frontean nola hiltzen diren ikusteko. Gu bezalako jendearen elkartasuna eta babesa jasotzen jarraituko dute, baina hori ez da nahikoa burujabe izateko.

Etorkizun beltz horrek ez al dizue aurrera segitzeko indarririk kentzen?

T.O.: Geureari eutsiko diogu. Hurria-Saharak jarraituko du urteroko ekitaldiak antolatzen, egiten dugunaren azalpenak ematen... Herritarrek ezagutzen dute gure taldearen dinamika eta badakite eskuzabaltasunez ematen duten hori sahararren eskutara iritsiko dela.

Hori bai, aurtengo udari begira, Saharako haurrak hartuko dituzten familia hartzaileak falta zaizkigu. Herritarrek animatuko nituzke urrats hori ematera.

Andoaingo Udal ordezkariak Saharan izan da



Aurreko larunbatean, otsailak 27, Saharako Errepublikako Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zela 40 urte bete zirela eta, nazioarteko bilkura deitu zuten eta bertara hurbildu ziren **Ana Carrere**, **Esti Mujika** eta **Maider Lainez** Udal ordezkariak **Ana Sanz** Gizarte Zerbitzuetako arduradunarekin batera. Argazkian, urteurreneko ekitaldian Ana Carrere eta Maider Lainez ikus daitezke.

MOZIOA

Aurreko osteguneko plenean Hurria-Sahara elkarteak proposaturiko mozioa aho batez onartu zen. Andoaingo Udalak Saharako Errepublikako gobernu legitimoa eta Fronte Polisarioa errekonozitzen dituela aditzera eman du, herri horrek burujabetzarako duen eskubidea aldarrikatzearekin batera. Eskaeren artean, Espainiako gobernuari Fronte Polisarioaren estatus politikoa aitortzea eskatu diote.

Marokoko agintariei, berriz, giza eskubideen alde lanean ari diren saharar aktibisten aurkako jazarpena gerraraztea eskatu diete.

Mozioan Tindufen babes-tuta dauden errefuxiatu-kanpamenduen aldeko konpromisoa ere berretsi dute.

ELKARTASUNA ERREPUBLIKA ARABIAR DEMOKRATIKOA ALDARRIKATU ZELA BERROGEI URTE BETE DIRENEAN



Urnietako udaletxea.



Andoaingo udaletxea.



Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.

Urnietako eta Andoaingo udaletzeko balkoitan edota Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren egoitzan, Saharako ikurriña eskegita izan da. Egun hauetan Euskal Herri osoan elkartasun keinu ugari egin dituzte.



JON ANDER UBEDA • ANDOAIN

Prekarietatea arintzen lagundu dezakeen politika fiskal justuagoa

Pobrezia energetikoa, etxegabetzeak, prekarietatea... adiera berriak dira ahozko hizkeran, amaierarik ikusten ez zaion krisitik eratorriak. Adiera horiek udalgintzara iritsi dira, eta agintaldi honen lehen hilabeteetan proposamenak ikusi ditugu. Asmo onez egiten dituzte, baina berandu iristen ari dira. Dagoeneko Andoainen eta beste zenbait euskal erakundetan behar horiei erantzun nahian lanean ari direlako. Hobeto edo okerrago, irakurlearen interpretaziora utziko dut hori.

Urtarilean, Udal aurrekontuen eztabaidan, Ganemos alderdiak baiezkua emateko baldintza modura etxegabetzeen aurrean kaltetuei zerbitzu juridikoak bermatzeko partida bat eskatu zuen. Aldundiak, ordea, zerbitzu hori badu, "ohiko etxebizitza galtzeko, edota gehiegizko zorpetzearen ondorioz giza bazterketa jasateko arriskuan dauden gipuzkoarrei laguntza juridiko espezializatua emateko". Doanekoa da, eta baliabide gutxien duten eta etxerik gabe geratzeko dauden pertsonen zuzenduta dago.

Otsailean zehar, Udal ordezkariak pobrezia energetikoaz eztabaidan aritu dira. PSE-EEk prentsa bidez aitzindaritzaren nahi izan zuen, pobrezia energetikoa geratzeko mozio bat aurkeztuko zuela iragarritz. Gobernu taldeak berehala erantzun zuen: "Une honetan Andoainen 80 unitate familiarrek energia pobrezia aurre egiteko laguntza jasotzen dute".

Inpresioa dut aipagai ditudan alderdi horietako ordezkariak Espainiako Kongresuan, Eusko Legebiltzarrean edota Batzar Nagusietan egongo balira bezala jokatzeko dutela. Eta gu Andoainen bizi gara. Udal orde-

Pobrezia energetikoa eta etxegabetze arriskua andoaindarren gizarte mailako arazo bakarrak balira, gaitzerdi. Krisiarekin pobrezia mugara zerbait edo asko gerturatu den gizarte sektorea handitu egin da. Prekarietatean bizi direnen kopurua handitu egin da

karien betebeharrak Andoaingo herritarren beharrei erantzutea da. Zeregina badago gure herrian, gizarte eta ekonomia mailan. Esaterako, politika fiskal justuagoa lantzea.

Pobrezia energetikoa eta etxegabetze arriskua andoaindarren gizarte mailako arazo bakarrak balira, gaitzerdi. Prekarietateak, ordea, hamaika aurpegi ditu. Ogia, barazkiak..., euroarekin oinarritzko elikagaiak nabarmen garestitu dira. Hilabeteak aurrera joan eta lanik gabe dagoenarentzat geroz eta murriztagoa da langabezia saria. Azken urteetan pentsioak eta jubilazioak bizi mailaren azpitik geratu dira. Kaltetuen zerrenda amaigabea da. Adibide horiekin, krisiarekin pobrezia mugara zerbait edo asko gerturatu den gizarte sektorea handitu egin da. Baita Andoainen ere.

Andoaindik zerbait egin daiteke? Ezer gutxi. Baina egin daitekeen gutxi horren alde saiatu beharko lirateke Udal ordezkariak. Enplegu kaskarra hartzea beste erremediorik ez duen iraupen luzeko langabetearekin edota bizi maila garestituz doan heinean pentsio kaskarrekin iraubizirik behar duen adinekoarekin akordatzen naiz ni. Andoaindik zer egin daiteke? Udal politika fiskal justuagoa. Herriko datu demografiko-

ak eta ur kontsumoak alderatuta, hiru hilabetero kobratzen den uraren tasa berraztertzea proposatu beharko litzateke.

INE estatu mailako estadistika institutuak eroldaren datuak eman berri ditu, 2012 eta 2015 urteen arteko populazioaren alderaketa eskainiz. Hiru urteren bueltan 22 herritar gehiago gara Andoainen, aldaketa handirik ez beraz. Horieta zenbat izango dira adinekoak? 2014ko datuen arabera, oso kontuan hartzeko kopurua da.

Andoaingo populazioa:

- 14.668 biztanle, denera.
- 3.117 biztanle, 65 urte edo gehiago.
- 1.386 biztanle, 75 urte edo gehiago.

Aiton-amonak, amona, alar-gundutako izeba, adinean gora doazen ahizpak... Andoainen bakarrik edo beste norbaitekin bizi diren adinekoak askotxo dira, toki guztietan bezalaxe. Kasu horietan guztietan uraren kontsumoa baxua da, beti ere nabarmen 30 m³ azpitik. Kopuru hori aipatu dut Andoaingo Udalak tarifa finkoa ezartzen baitu 0 eta 30 m³ bitarteko ur kontsumoetan. Tarte horretan dabilzan guztiei hiru hilabetero 43,06 euroko prezioa ezartzen zaie. Askotxo da hori.

Har dezagun adibide errealtat. 2015eko hirugarren hilabetero ur tasan, Tolosako amona batek 11 m³ ur kontsumitu zuen. Gipuzkoako Ur Kontsorzioak kontsumitutako ur horregatik 29,90 euroko faktura igorri zion. Amona hori Andoaingo balitz, kontsumitutako 11 m³ ur horientatik Udalak 43,06 euroko faktura igorriko zion. Tolosa eta Andoain herrien arteko tasa sisteman, bistakoa da aldea.

Antzeko zenbat kasu egon daitezke Andoainen? 2015eko hasierako datuen arabera, herri-gunean 6 eta 12 m³ bitarteko ur kontsumoa erregistratu zuten 619 ur kontagailu zeuden. Ez gara, beraz, aparteko kasuez ari. Gutxi kontsumitu eta garesti ordaintzen duten kasuez betirik dago Andoain. Dozenaka dira. Horietako asko prekarietateak astindutako herrikideak dira. Sistema justuago baten alde lan egin beharko litzateke.

Antzeko egoera gordinean dagoen beste segmentua merkataritzarena da. Merkataritzak ahuldade handiak dituen herrian ur tasa handia ezartzea zigor erantsia dela esango nuke nik. Datuak aletzen eta alderatzen hasita, Andoainen 2015aren hasieran 0 eta 13 m³ bitarteko ur kontsumoa zuten merkatalguneak %86,37 ziren. Ia denak, beraz. Zenbatera iritsi daiteke ur kontsumoa liburu denda batean? Eta arropa denda batean? Aseguru etxe batean? Optika batean? Zapata denda batean? Okindegi batean? Uste duguna baino gutxiago. Tolosan hiru hilabetero 38,78 euroko ur tasa ordaintzen egongo lirateke. Andoainen, berriz, 58,02 euro. Urte osoko fakturak zenbatuta, diferentzia nabarmena da.

Politika fiskal berria aztertzen hastea, horra hor ordezkari politiko guztiei eta dagokien udal teknikariei zuzenduriko gizarte eta ekonomia mailako erronka.

2015eko azaroaren 26an Gipuzkoako Ur Kontsorzioan sartu edo ez sartu, garrantzia handiko plenoa izan zen hura. Alderdi abertzaleen artean entzun ziren argudio sutuenak. Elkarren aurkakoak ziren, dena esatera. EH Bilduk Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren alde egin nahi zuen, Andoaingo Udalaren egoera onbideratzeko aukera

Tolosako amona batek 11 m³ ur kontsumitu zuen. Gipuzkoako Ur Kontsorzioak kontsumitutako ur horregatik 29,90 euroko faktura igorri zion. Amona hori Andoaingo balitz, kontsumitutako 11 m³ ur horientatik Udalak 43,06 euroko faktura igorriko zion

onena zelakoan. EAJ-PNVk bere aldetik azkeneraino kudeaketa herrian bertan egiteari lehentasuna eman zion, erabaki hori onena zela argudiatuta.

Eztabaidaren baitan zegoen erabakia hartzeko gehiengo osoa izatea beharrezkoa zenez, PSE-EEren botoa erabakior bilakatu zen. Ur Kontsorzioan sartzearen aurkako botoa eman zuen, azalpen asko eman gabe. Ganemos eta Irabazi Ur Kontsorzioan sartzearen alde zeuden, baina euren botoek ez zuten gehiengorik ziurtatzen.

Ur zerbitzuaren sistema erabakitzeko eztabaida pleno hartan amaitu zen. Karpeten artean egongo dira, baztertuta, bateko eta besteko txostenak.

Artikulu honetan agertu diren datuekin, Gipuzkoako Ur Kontsorzioak ur kontsumo txikiakiko sistema justuagoa du. Sistema berdin-berdina hona ekarri gabe ere, izpiritu hori izan dezakeen fakturazio politika berria aztertzeko prest leudeke Andoainen ordezkariak. Kontuan har dezagun pobrezia mugara zerbait edo asko gerturatu den Andoaingo gizarte sektore hori: Ofizialki ez da pobrea, ez du etxebizitza desjabetze arriskuan. Baina prekarietateak jota dago. Dozenaka daude egoera horretan.

Aiurriko harpidedun izatearen abantailak:

TXOTX!

**Harpidedun egin
zaitez eta etxean
jasoko duzu:**
943 300 732
idazkaritza@aiurri.eus



Sarasola
943 690 283
ASTEASU

Gaztañaga
943 591 968
ANDOAIN

Aburuza
943 692 452
ADUNA

Altuna
943 554 917
URNIETA


Oianume
943 556 683
URNIETA

Larre-gain
943 555 846
EREÑOZU-HERNANI

R. Zabala
943 690 774
ADUNA

Zerbitzu telematikoak areagotzea, helburu nagusien artean

www.andoain.eus gune eraberritua aurkeztu dute



Ainara Rodriguez zinegotzia eta Iñigo Muñoz Udal informatikaria Urigainen, webgune berriaren aurkezpen ekitaldian.

Aurreko ostegunetik erabilgarri dago www.andoain.eus Andoaingo Udalen webgune eraberritua, zeinak berrikuntzak agertzen dituen informazioaren aurkezpenean eta edukietan. Begietara erakargarriagoa izateaz gain, gardentasunaren atarian informazio ugari eskegi dute. Udal gobernu taldeak garrantzia handia eman dio: "Urrats berri honen, gaur egun hain garrantzi-

tsua den komunikazioaren eremuan urrats berria eman dugu aurrera. Udal aldizkaria eta sare sozialen erabilerarekin batera, Udala eta herritarren arteko komunikazioan sakontzen jarraitu nahi dugu".

Udalak honako helburuak bete nahiko lituzke webgune berriarekin:

- Herriko informazioa modu zuzenean, erakargarrian eta gardenean jasotzea.

- Herritarrek administrazioan egin behar dituzten gestioak zerbitzu telematikoaren bitartez eroso egin ahal izatea.
- Teknologia eta baliabide berrietara egokitzen joatea, adibidez, udalbatza edo pleno batzarrak streaming bidez ikusi ahal izatea.

Webgunea **Ainara Rodriguez** zinegotziak eta **Iñigo Muñoz** Udal informatikariak aurkeztu zuten.

Bi zuhaitz erori ziren, eta ibaien ur mailak kezka sortu zuen

Denboraleak arriskua sortu zuen herrigunean

Aurreko larunbat arratsaldean alerta laranja ezarri zuten, eta euriteak nahiz haizeteak arazoak sortu zituen herrigunean. Kalte material arinak sortu zituen, zoroinez. Merkatu plazan, esaterako, Gurutze Goriaren egoitzaren parean zuhaitz bat erori zen. Ikusgarria izan zen La Salle etorbidekoa, bertan zuhaitz handi bat erori zelako espaloia eta errepidea hartuz. Suhiltzaileak bertaratu ziren zuhaitz adarrak bertatik kentzeko.

Euriteekin ordu gutxira, Espigoira eta Zumea kaleko garajeetara igo zen ur maila. Zorionez, iluntzean euriak etena egin eta uholde arriskuak saihestu ziren. Udalak gau horretan Goikoplazan eta Etxe-



Urigain ondoan utzi zituzten ekaizak botatako zuhaitzaren enbor zatiak.

berrietako plazan ibilgailuak uzteko baimen berezia eman zuten.

Aiurri.eus webgunean ikusgai dago suhiltzaileen parte hartzearen bideoa.

Andaluziaren eguna Triana elkartearen egoitzan



Las Flamenquitas Triana elkarte dantza taldea da.

Ekitaldiz beterikoa izan zen aurreko asteburua Triana elkartearen, otsailaren 28a Andaluziaren eguna baita. Bi egunez jarduera ezberdinak antolatutuzten. Arrakastatsuen

igande arratsaldeko folklore emanaldia izan zen Violetas eta Las Flamenquitas dantza taldeen eta abesbatzaren eskutik. Pasodobleak, sevillanak eta rumbak eskaini zituzten.



Merche Montes kantaria.



Violetas taldeko kidea.



Triana abesbatza.

Maindi iturria urik gabe

Azken euriteen eraginez, lizi bat gertatu da Garaikero eta presaren inguruan, Olagain auzoan. Horren eraginez, Maindi iturrira ez da urik iristen.

Udalak jakinarazi duenez,

Udal langileak dagoeneko konpontze lanetan ari dira. Zuhur jokatu nahi dute eta egindako lehen iragarpenaren arabera, ura berrezartze lanetan hilabetea igaroko da.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Euskara Zuzendaritza

Elkarbizi taldearen egitasmoak eskualdean



Postontzia

Elkarbizitza ez da bera bakarrik sortzen. Egunero-egunero pertsona guztien artean lortzen dugu, gutxi batzuen ekintzek suntsitu egin badezakete ere. Hala ere, badakigu elkarbizitza hitzegiteak, nola hondatu den ikusteak edo nola konpon daitekeen gogoetatzeak, elkarbizitzan aurrera pausoak dakartzala, baita gatazka-zale direnei bidea ixtea ere.

Horrexegatik, bizikidetzara eraikitzeak dagokigun hondar alea jartzen ari gara. Gure arteko eredu baikorrenak azaldu nahi ditugu, ahaztu gabe euskal herritarroei egindako kalte guztia erakustea ere eraikigarria izan daitekeela nahi dugun bizikidetzara horren oinarriak sendo jartzeko.

Dagoeneko, lan hori garatzen ari gara bailarako Elkarbizi taldekook. Gure lehenengo urtean, elkarbizitzaren aldeko jardunaldiak eta ikastaroak antolatu genituen. Aurtenera, gai ezberdinak jorratu nahi ditugu martxotik abendura gauzatuko dugun programa zabal baten arabera. Bizikidetzara sendotzeko beharrezkoak diren zenbait gai aztertu ahal izango ditugu gure ekitaldietan.

Hamabi ikastaro egingo ditugu. Lehenengo ekitaldian, Martxoaren 12an, memoria eta historia, indarkeriaren kontakizuna osatzeko eta transmititzeko baliagarritasunik baduten aztertuko dugu. Justiziak edo komunikabideek bete dezaketen papera elkarbizitzaren hobekuntzan, memoria eta artea, autokritika produkzio audio-bisualean..., edo aske eta seguru bizitzeko ezinbesteko ditugun armagabetzeak, izango dira hurrengoetako aztergaiak.

Ondoren, bertan izan ditugun eredu humanista gorenei begiratu nahi diegu, Agirre lehendakaria eta Arizmendiarieta, egungo biziki-

“Gure lehenengo urtean, elkarbizitzaren aldeko jardunaldiak eta ikastaroak antolatu genituen. Aurtenera, gai ezberdinak jorratu nahi ditugu martxotik abendura bitarte”

detza bideratzeko jarraibide iradokigarriak ematen dituztelako.

Azkenik, tormentuaren memoria osoaren alde agertu nahi dugu. Estatuaren zerbitzariak egindako torturak eta tratatu txarren inguruan ikertu dena ezagutu ahal izango dugu. Baita zerga iraultzaileak edo jazarpen indarkeriak egindako kalteak ere aztertuko dugu. Ez ditugu indarkeriaren adierazpen kaltegarri hauek jorratu gabe utzi nahi. Hauen memoria zabaltzea ere beharrezkoa baita.

Ikastaroak bailarako herri guztietan egin nahi ditugu. Ondoan doan programazioan zehazten den bezalaxe, Andoainen bi ekitaldi aurreikusitakoak dira. “Artea, elkarbizitzaren aldeko sorkuntza morala”, Gotzon Etxeberriak emango duena; eta “Agirre lehendakaria eta bere Jaurlaritzaren mezu gizakoa”, Joxan Rodriguezek azalduko duena.

2016KO IKASTAROAK ANDOAINEN ETA URNIETAN

Aiurri.eus/postontzia gunean ikastaro osoa irakurgai dago. Jarraian, Andoaingo eta Urnietako hitzorduak:

- “Indarkeriaren aurrean, euskal literaturaren eboluzioa”. Apirilak 30. Urnieta.
- “Artea, elkarbizitzaren aldeko sorkuntza morala. Gune artistikoak, oroimenezko transmisio leku bezala”. Gotzon Etxeberria, Enrique Ayerbe. Ekainak 4. Andoain.
- Bertako jarraibideak: Guztion arteko bat-egitea eta bake soziala, bizikidetzara berreraikitzeak (1945). Agirre lehendakaria eta bere Jaurlaritzaren mezu gizakoa, iradokigarria gaurko arazoaren aurrean. Joxan Rodriguez. Irailak 10. Andoain.
- Tormentuaren memoria osoaren alde. Zerga iraultzailearen biktima isilak. Abenduak 10. Urnieta.

Martxoaren 12rako manifestazioa deitu dute Andoainen

Ehunka lagun Zubietan erraustegiaren aurka



Antolatzaileen arabera bi mila lagun hurbildu ziren Zubietako azken ekitaldira. Tartean andoaindarrak eta urnietarrak zeuden.

Larunbatean haize bortitza, euria barra-barra eta negu giroa izan arren, erraustegiaren aurkako taldeek igandeko martxari eutsi zioten. Goizeko zortziretan Ipar Haizea plataformak deitutako hitzordura hogeita lagun bildu zituen Andoaingo merkatu plazan. Allurralde gain baseritik gora Belkoain aldera abiatu ziren Zubietako lurretara. Bidean, Aiztondo plataformako kideak zain zituzten. Azken zatia denek elkarrekin egin zuten. Beranduego, 09:30ak aldera, Urnietako San Juan plazatik herritar talde bat abiatu zen Lasarte-Oriako Okendo plazara. Handik dozenaka lagun erraustegia ipini nahi duten gunera abiatu

ziren. Bidearen zati batzuk erabat lokaztuta egon arren, askotxo igo ziren errauskailua jarri nahi duten gunera. Handik behera, Zubietako plazara abiatu ziren ekitaldi nagusia bertatik bertara jarraitzea. Askoz jende gehiago bildu zen han, antolatzaileen arabera bi mila pertsona. Aurreikuspenak gainditu zirela adierazi dute balorazioa biltzen duen oharrean: “Gipuzkoako Diputazioaren Gobernu berria eratu eta iragana zirudien Zubietako Errauste plantaren egitasmoa berriz ere martxan jartzeko asmoaren egikaritzeak herri mugimendu berritu eta berri baten autoeratzeari ekarri du: Gipuzkoako Errusketaren Aurkako Mugimendua”.

Osasunaren aldeko martxa Andoainen izango da martxoaren 12an, arratsaldeko 17:00etan hasita

Ekitaldia, pankarta erraldoi baten inguruan ateratako argazkiarekin bukatu zen, baina bukatu aurretik martxoaren 12an Andoainen erraustegiaren kontrako manifestazioa egingo dela gogoratu zuten. Halaber, maiatzaren 29ko data egutegian ondo gordetzeko gomendatu zuten. Izan ere, egun horri begira ekitaldi eder bat prestatzeko asmoa du Erraustegiaren kontrako Mugimendua.



Andoaindik eta Urnietatik irtendako martxak Zubietako errauste plantaraino iritsi ziren. Ekitaldi nagusia ondoren egin zuten, Zubietako plazan. Andoaingo eta Urnietako martxen bideak ikusgai daude aiurri.eus webgunean.



KIROL ALBISTEAK

Mahai-ingurua Urnietan

“Emakumeak goi mailako kirolean: atzo, gaur eta bihar” izenburupean.

Martxoak 8, asteartea. 19:15.
Lekaio. Euskaraz.

Hizlariak: Ainhoa Ostolaza txirindulari ohia, Idoia Esnaola korrikalaria, Marijo Sardon harri-jasotzaile ohia, Maider Mendizabal pala jokalaria ohia eta Nahikari Garcia futbolaria. Moderatzailea: Ainhoa Azurmendi.



Maidar Mendizabal.



Nahikari Garcia.

Kirol merezimendu sarira, deialdi berria martxan

Allurralde kiroldegia udaren atarian **Kirolaren Astea** antolatu ohi du, besteak beste, kirol merezimendu saria banatzeko. Andoaindarrek martxoaren 31ra bitarte hautagaiak aurkezteko aukera izango dute. Ohar bidez igorritako oharrean, saria jaso dezaketen hautagaiak “herriko kirolaren aldeko lanagatik edo bere kirol ibilbide pertsonalagatik” izan daitezke.

Hautagaiak aurkezteko hemen atxikitutako fitxa bete eta allurralde@andoain.eus helbide elektronikora bidali behar da. Halaber kiroldegian jarritako kutxan ere fitxa sartzeko aukera egongo da.

HAUTAGAIK

Adinez helduak diren, eta ibilbidea Andoainen gauzatu eta



Pilota eskolako Andoni Alvarezek jaso zuen iaz kirol merezimendu saria.

ondorengo arrazoiengatik nabarmendu direnak:

- Herriko kirolaren aldeko lanagatik.
- Bere kirol ibilbide pertsonalagatik.

Kirol elkarteek eta Andoainko edozein herritarrak hauta-

gaiak izenda ditzakete. Elkarte edota herritar bakoitzak, gehienez ere, hautagai bat aurkeztu ahal izango du.

Hautagaiak izendatzeko fitxa kirola.andoain.eus webgunean eskuragarri dago.

Azken eguna: martxoak 31.

Urnietako kirol politikaren ekintza plana iragarri dute

Urnietako Udalak, azpiegituren hobekuntzatik haratago, kirol sistema osoari eragingo dion ekintza plana gauzatu nahi du. Plan horrek udalerriko kirol agente ezberdinen egitekoa zehazteko eta antolatze balioko du. Enpresa baten bidez garatuko da plan hori, hiru fasetan:

- Egungo egoeraren diagnosti-

koa: Herriko kirol eremua osatzen duten arlo ezberdinen inguruko datu bilketa.

- Lehenetsuna izango duten ekintza lerroen definizioa.
- Legegintzaldi honetarako lehenetsuna izango duten ekintza lerroak zehaztuko dira. Proposamena Urnietako kirol mahaiarekin kontrastatuko da.

Egutegia zehatza aurkeztu du Udalak, martxoan hasita: “Martxoan egungo egoeraren analisia egingo da. Apirilean, berriz, lehenetsuna duten ekintza lerroak definituko dituzte. Maiatzean proposamenak kontrastatuko dira eta, azkenik, ekainean azken idatzia eta txostena landuko dira”.

Urnietako pilotariak Gipuzkoako bi finaletan

Urnietako-Oiarpe 2

Kadete mailako finala. Trinketea. Larunbata, 5. 16:15. Iruria.

Urnietako-Usturibil

Senior mailako finala. Trinketea. Larunbata, 5. 16:15. Iruria.

Ganbara saski taldea

Asteburuko emaitzak:

Bosteko 58-56 Ganbara SenM
Ganbara JubM 28-37 Oiartzun
BKL 36-29 Ganbara InfM

Datorren jardunaldia:

Ganbara InfM-LEK
09:00. Allurralde.
Martxoak 5, larunbata.

Futbola, asteburuko partidak

ERREGIONAL OHOREZKOAK

24. jardunaldia:

Euskalduna 0-4 Ordizia

Sailkapena:

1. Tolosa	48 puntu
2. Anaitasuna	48 puntu
3. Mutriku	43 puntu
12. Euskalduna	28 puntu

25. jardunaldia. Larunbata, 6:

Hernani-Euskalduna. 16:00.

PREFERENTE MUTILAK

21. jardunaldia:

Trintxerpe 2-0 Urnietako

Sailkapena:

1. Sanpedrotarra	49 puntu
2. Añorga	46 puntu
3. Baskonia	46 puntu
5. Urnietako	39 puntu

22. jardunaldia. Larunbata, 6:

Urnietako-Mariño. 18:00.

Areto futbol txapelketa

A taldea, emaitzak:

DAD Kutxa 3-2 Ekhia
Txalaka 5-4 OZU
Centro Extremeño 0-5 Keler

B taldea, emaitzak:

Hogar Extremeño 8-5 Academia G.F
Ekaitz 8-3 Pausoka
Ondarra 4-12 Bar Egur

Eskubaloian garaile

Urnietako SenN 24-23 Eibar

Bigarren faseari garaipenarekin ekin diote. Garaipenari esker taldeak gogo handiz ekingo dio Leizaranen aurkako derbiari.

Urnietako SenM 27-30 Urnietako

Partida bigarren zatian erabaki zen, non kanpokoek urnietarrek baino eraginkortasun handiagoa erakutsi zuten.

Urpeko harrobia dago



Buruntzaldea IKT taldeko benjamin eta alebinak.

Nerea Irazu, Eneko Elizasu, Unai Rodriguez eta klubeko beste zenbait igerilari bikain izan ziren Azpeitian 50 metro sariko finalean. Banaka eta erreleboka lehiatu ziren.

ren. Errelebuei dagokionez, B finaleko mistoan bigarren izan ziren eta alebinen A finalean laugarren, amaiera arte lehiatutako errelebo zirrargarri batean.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-RURINTZAKO ASTEMARRIA

Manuel Larramendi
Kultur Bazkuna

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek bi udalerri hauen dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

MARTXOAREN 4IK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

- Andoain, Bastero**
- “Spotlight”, Oscar saria jaso du film onenari.
Larunbata, 5. 19:30, 22:00.
Igandea, 6. 19:30.
Astelarena, 7. 19:30, 22:00.
 - Haurrentzat: “Zootropolis”.
Martxoak 5 eta 6. 17:00.
 - Datorren asteburuan: “La chica danesa”.
Martxoak 13 eta 14.

Kabareta

- Andoain, Bastero**
- “Cabaré Chihuahua” musikal kritikoa da, euskomexikarra eta zonbi xamarra.
21:30. Bastero.
Martxoak 4, ostirala.

Antzerkia

- Urnietan, Sarobe**
- “Tartufo” Zurriola antzerki eskolaren eskutik.
19:30. Euskaraz.
Martxoak 6, igandea.

Batzarra

- Asteasu, Udaletxea**
- Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren biltzar nagusia.
11:00 Ekitaldi aretoa.
Martxoak 12, larunbata.
 - Olagain jubilatuena elkartea-
ren urteko batzar nagusia.
17:00 Musika eskola.
Martxoak 12, larunbata.

Zikloa

- Andoain, Gazte Lokala**
- “Instantlean” argazki taillera eta lehiaketa.
Argazki rallya:
Martxoak 9-11.

Farmaziak

- Eskualdea**
- Andoain: Arzallus.
Urnietan: Tanco.
 - Gauez: Urrutia (Hernani).
Martxoak 5 eta 6.

Martxoak 8

- Urnietan**
- Martxoak 7, astelehena
19:00 Lekaio. Gazteleraz.
Helduentzat ipuin kontakteta saioa.
 - Martxoak 8, asteartea
19:00 Elkarretaratzea San Juan plazan.
19:15 Lekaio. Euskaraz.
Mahai-ingurua, “Emakumeak goi mailako kirolean: atzo, gaur eta bihar”: Maider Mendizabal pala jokalarari ohia, Ainhoa Ostolaza txirrindulari ohia, Marijo Sardon harri jasotzaile ohia, Idoia Esnaola korrikalaria, Nahikari Garcia futbolaria.

- Martxoak 9, asteazkena
19:00 Sarobe. Gazteleraz.
“Las Pelotaris” dokumental-laburmetraia.
- Martxoak 12, larunbata
21:30 Oianume. emakumeen afaria. Lankide Aurrezki Kutxan eman behar da izena.
- Martxoak 13, igandea
19:00 Sarobe. Euskaraz.
“Ene maite kuttun guztiak”, Anne Sexton poetan oinarrituriko emanaldia: Harkaitz Cano, Ainara Gurrutxaga eta Iban Urizar.
- Martxoak 31 bitarte
“Emakume begiradak” Iñaki Vergararen argazkiak ikusgai Lekaion.

Hitzaldia

- Urnietan, Denda Berri**
- Arantxa Intxausti abokatuak hitzaldia eskainiko du jubilatuena egoitzan, testamentu eta oinordekotzen inguruan atera den lege berriari buruzko argibideak eskaintzeko.
17:00. Denda Berri.
Martxoak 4, ostirala.

Martxoak 8

- Andoain**
- Martxoak 4, ostirala
18:30 Egitarauaren aurkezpene eta kartel lehiaketaren sari banaketa ekitaldia.
Mahai-ingurua: “Aitatasuna, maskulinitatea eta etxeko espazioaren dimentsio politikoa”. Hizlariak: Angel Toña Jaurlaritzako sailburua, Izaskun Landaida Emakundeko zuzendaria, Haizea Barcenilla arte kritikaria eta Pello Ulazia artista.
19:30 Pello Ulaziaren “Isilean” erakusketaren irekiera.
 - Martxoak 5, larunbata
12:00 Bastero plazatik hasitako “Pausoz-pauso, martxoak 8 emakume” kalejira.
20:00 “Ez da kasualitatea” bertso saioa: Alaia Martin, Onintza Enbeita, Oihana Iguaran, Ane Labaka.
Gai jartzailea: Amaia Agirre.
Musikariak: Araitz Bizkai, Gari Otamendi.
 - Martxoak 8, asteartea
19:00 Zine foruma: “Menerita” eta “Virgen Negra”.
 - Martxoak 10, osteguna
17:30 Kultur aniztasunaren saioa gazte lokalean.
 - Martxoak 11, ostirala
21:30 Olatz Zugastiren kontzertua.
 - Martxoak 12, larunbata
20:00 Las Chirigóticas taldearen “Juanita Calamidad” antzezlanak.

Manifestazioa

- Andoain**
- “Osasunaren aldeko martxa. Erraustegiaren aurka.
17:00.
Martxoak 12, larunbata.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Zorionak etxeko txikiak!

Pasa den otsailaren 26an Unax Mirandak urteak bete zituen.
Muxu asko etxekoen partetik.

ANDOAIN


ZORIONAK IBAI



Bizirik nau ta hala sentitzen naz, topera nau... geurinorkeznau geldittuko! 15 urte, 15 abesti, 15 ardura gehiago! 15 besarkada. Ama, aita eta Imanol.

ANDOAIN

ZORIONAK



Julen Gurrutxaga Aizpuruak martxoaren 15ean 4 urte egiten ditu. Etxeko piratari zorionak! Gora bihotzak eta ongi ospatu! Maialen, Iker, Ibai eta Imanol.

ANDOAIN

ZORIONAK



Marak 7 urte beteko ditu martxoaren 8an. Gure etxeko neska txikiak, eta hain handiak! Etxekoen partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Gure Luka txikia otsailaren 20an jaio zen. Bere gurasoei, Inigo eta Naiarari, zorionak bihotz-bihotzez etxekoen partetik.

ANDOAIN



ZORION AGURRAK

Erraza da, eta dohainik. Emaillez: diseinua@aiurri.com. Webgunea: aiurri.com.

MERKATU TXIKIA: Mutiko bat elkarbanatzeko pisu baten bila dabil, Andoain edo Tolosaldean. Hilabete batzutarako ta asteterterako litzake. 667 050 264 / 948 453 413.

Lan eskaintza eskualde mailako udalek deituta

Hazilan gazte kualifikatu langabeak eta herriko enpresak uztartzen dituen egitasmoa da. Programaren helburua gazteen laneratzeari erraztea da. Langabezia daukaten eta ikasten ari ez diren 20-35 urte arteko gazte kualifikatuak parte hartu ahal izango dute Hazilaren. Andoingo Udalak Beterri eskualdeko udalen ordezkari izan, Hazilan programaren kudeaketaz arduratuko den enplegu teknika-ria kontratatu behar du.
Bete beharreko baldintzak:
• Unibertsitateko erdi mailako edo goi mailako ikasketak. Enpresarekin zerikusia duten arlokoak lehenetsiko dira.
• EGA edo baliokidea.
• Lan eskarmentua teknikari gisa tokiko garapenean, enplegua / autoenplegua eta enplegu-pres-
takuntzako programetan.

Lan baldintzak:

- Lanaldi erdia, 2016ko abenduaren 31ra bitarte. Luzagarria.
- **Baloratuko dena:**
- Prestakuntza.
- Lan eskarmentua enplegua eta prestakuntza alorreko sustapenean.
- Lantaldeen kudeaketa.

Eskaerak:

- Eskaera orria jarraian azaltzen den dokumentazioarekin:
–NAN fotokopia.
–Eguneratutako lan-bizitzaren agiria.
–Curriculum Vitaea.
- Lekua eta epea:
–Otsailaren 29tik martxoaren 11ra bitarte.
–Asteleneetik ostiralera.
–Lekua: Andoingo Udala, Orduetgia: 9:00-13:00.